

KOTE GUEVARA URKIOLA, Hondarribiko Udal Liburutegiko Arduraduna

"Zuloaga etxean lanak egin eta ondoren, askoz ere leku gehiago izango dugu erabiltzaileentzat"

Kote Guevara Hondarribiko udal liburutegiko arduradun da honek bere atea 1987. urtean zabaldu zituenetik. Ordutik honako bidean "aldaketa eta bilakaera asko" eman ditu mundu honek. Laister, pauso berria emango da Hondarribian, Zuloaga etxearen berritze eta zabaltzearekin.

HONDARRIBIA. Azken asteetan bereziki lanpetuta dabilta Hondarribiko Zuloaga etxean. Han dute egoitza, Hirigune Historikoaren bihotzean dagoen Kale Nagusian, udal liburutegiak eta udal artxiboak. Azken hau Denda kaleko kultur etxeeko behera eramateko lanak ia-ia amaituta daude. Tarte bat aurkitu du 53 urteko Kote Guevarak bere lanari eta liburutegiaren iragan eta etorkizunari buruz solasean aritzeko.

Hondarribiko udal liburutegia zabaldu zela 26 urte bete berri dira. Nola gogoratzen duzu hasiera hura?

Historia ikasi nuen nik eta liburuzaintzaz ez neki gehiegi garai hartan. Oposaketak prestatu nituen 1986. urtean eta Errenerteriakoetan bigarren geratu nintzen, urte hartako uda aurretik. Azaroan eta abenduan egin zen Hondarribiko liburuzain plazaren oposaketa eta hora irabazita, 1987. urteko urtarrilean hasi ginen, Itsas Etxeko gela txiki batean. Hara sartu nintzen lehenengo egunean, orduan liburutegien ardura teknikoa zuen Foru Aldundiak emandako liburu sorta bat zegoen, kaxetan. Ez mahairik, ez aulkirik, ez apalik ere liburuak jartzeko. Udaletxeko Kultura teknikariarengana jo eta martxan jarri ginen. Apal eta mahaiak arotz bati eskatu, aulkia erosi eta pixkanaka, liburutegia martxan hasi zen.

Jende asko al zeneukaten hasieran? Nolakoa izan zen harrera?

Hasieran, inguruko jendea etortzen zen liburutegira. Gehienbat, umeak eta gazteak, etxeko lanak egitera edo ikastera. Horretarako, Itsas Etxean Instituto Social de la Marina delakoak zeukan liburutegi gela erabiltzen genuen. Hiritarrek ez zuten gaur egun liburutegiei buruz duten irudi berdina. Garai hartan, liburutegi hitzak eruditu eta ikertzaileentzako leku itxi eta helezinen irudia zekarkion jendeari burura. Orain guztiz bestelakoa da hori, zorionez.

Noiz egin zen Zuloaga etxerako aldaketa? Zer suposatu zuen honek?

Hasieratik pentsatua zegoen liburutegia Kale Nagusiko Zuloaga etxean jartzea. Zerbitzua irekitzeko erabakia Zuloaga etxearen erdia bere jabe zen emakumeak Udalari dohaintzan ematean hartu zen, baina zenbait lan burutu beharra zegoen eraikina liburutegi modura atontzeko. Lan horietan zenbait arazo sortu ziren eta printzipioz Itsas Etxean sei hilabeteko behin-behineko egonaldia izan behar zuenak hiru urte iraun zituen. Azkenean, Zuloagara aldatu eta hortxe hasi zen liburutegia benetako garapena eta hazkuntza izaten. Jaurlaritzaren zuzendaritza teknikoaren pean egotera passa ginen eta Euskal Herriko liburutegi sarea sortu zen; informatizazioa ere hasi zen, ordura arte idazmakinaz betetzen genituen kartoizko fitxak alde batera utzita eta laister etorri zen ere Internet. Lehenengo ordenagailu konektatua 1992. urtean jarri genuen erabiltzaileen eskura.

Nolakoa izan da ordutik honako bilakaera? Irakurtzea asko gusta-tzen al zaie hondarribiarrei?

Asko aldatu dira gauzak eta kopuruak. Gaur egun 48.013 dokumentuz osatutako fondoa daukagu, liburuak eta bideoak batipat, eta 7.343 bazkide. Asko irakurtzen al du jendeak? Batzuek besteek baino gehiago. Bi irakurle profil argi dauzkagu, ia leku guztietan bezala. Alde batetik, 12 urte arterako umeak eta bestetik, 50 urte inguruko emakumea, horixe da irakurle amorratuenen prototipoa. Bainaz ez dut esan nahi ere gazte eta gizonezkoek irakurtzen ez dutenik.

Aurten hasiko dira Zuloaga etxea barnetik eraberritu eta alboko eraikinera ere liburutegia zabaltzeko lanak. Aspalditik egina zenioten eskari hau Udalari?

Zuloaga etxea gaur egun dagoen bezala txiki geratu zitzagun duela zenbait urte, bereziki fondoak gordetzeko lekurik ez daukagulako jadanik. Euskaltegiaren sotoko biltegian daukagu gure dokumentuen zati garrantzitsu bat. Eskaria egina genuen baina alboko eraikinaren jabetza behar zuen lehenengo Udalak. Hori lortu ondoren, proiektua prestatzen hasi ginene Juan Jose Ugarte arkitektuarekin eta aurrekontua ere eskura jarri zen iaz, momentu hauetan zaila zen gauza da hau. Azkenik, dena martxan dago eta uda honetarako edo lanak hastea espero dugu. Urte eta erdi egongo gara Jostaldi ondoan anbulategia jartzeko erabili ziren prefabricatuetan eta obraren ondoren, Zuloaga etxea erabat aldatuko da barrutik. Erabiltzaileentzat askoz ere leku gehiago izango dugu. Harrera behean egongo da, txikientzako txokoa, irakurketa eta ikasketarako gelak, multimedia gela eta beste izango ditugu... Eta alboko eraikinean, tailer eta ekintzetarako gela eta gure bulegoak, Zuloagako aldearekin komunikatuta.

Liburu irakurgailu elektronikoak ere duela urte bete dauzkazue erabiltzaileen eskura, maileguan har ditzaten. Nola ikusten duzu formatu honen etorkizuna?

Teknologia berritzen ari da etengabe eta nork daki zer gauza berri etorriko zaigun. Liburu irakurgailuak probatu dituztenek, erosi egin dute gero. Bainaz oraindik paperak bizia baduela uste dut.

Las claves

- . Gehien atsegin duzun Gipuzkoako txokoa: Hondarribiko Hirigune Historikoa, eta bereziki, Kale Nagusia. Leku zoragarria da.
- . Paisaia bat: Berez Gipuzkoan ez badago ere, asko gustatzen zait hementxe gertu daukagun Hendaiako Abadiako ingurura joatea. Hondartza, itsasoa eta gazteluaren ikuspegiak zoragarriak dira, nire ustez.
- . Mendi bat: Aralar eta Txindoki aldera joatea gustuko dut, baita hemen gertuago Jaizkibelera zein Aiako Harrira ere.
- . Hondartza bat: Hendaiakoa zoragarria da. Ederra, luze eta zabala, bainatzeko, egoteko eta paseatzeko egokia.
- . Jai bat: Asko ibili izan naiz inguruko herrietako jaietan, baina etxeak ditut gustukoen, Hondarribiko jaiak.